

## El falso paraíso

Simone Weil, una filósofa francesa que murió en el año 1943, con tan solo 34 años de edad, es la autora de un misterioso pensamiento sobre el que merece la pena reflexionar: «El infierno es creerse en el paraíso por error».

Un primer punto de aproximación lo encontramos en uno de los escritos de san Agustín, en el que abordando la cuestión de la felicidad del hombre, plantea la siguiente hipótesis: Si viniendo Dios al mundo nos hablase con su propia voz y nos invitase a disfrutar sin límites de la abundancia de todas las cosas creadas, no solo en el espacio de esta vida, sino por toda la eternidad; pero, eso sí, anunciándonos que no veremos nunca su rostro... Al llegar esta noticia a la humanidad, prosigue san Agustín, se escucharía en todo el orbe un lamento colectivo, nacido de la decepción del ser humano por ver frustrado su deseo de unirse a Dios.

Recientemente ha sido traducida al castellano una obra de Gustave Thibon titulada **Seréis como dioses**, en la que el autor nos propone una hipótesis muy semejante, aunque planteada como un logro de la humanidad: Imaginemos un mundo futuro en el que los hombres sean plenamente inmortales gracias a los avances científicos. Imaginemos un mundo en el que la ciencia haya colmado al ser humano de todas sus aspiraciones inmediatas, pero a costa de dejarlo sin eternidad, a costa de renunciar a participar de la vida de Dios. La consecuencia de esta hipótesis sería, igualmente, la frustración más profunda del hombre. No existe una plenitud de felicidad sin Dios. El propio san Agustín lo resumía en su conocida máxima: «Nos hiciste, Señor, para ti, y nuestro corazón está inquieto, hasta que descanse en ti». El ser humano, a diferencia del resto de la creación, está llamado a la intimidad con Dios, porque ha sido creado a su imagen y semejanza. Ocurre además que cuando nos creemos en el “paraíso”, sin estarlo en realidad, caemos inevitablemente en la idolatría; y esta idolatría nos convierte en ciegos y sordos... La encíclica **Lumen fidei**, de la cual se dice que fue escrita a cuatro manos por Francisco y Benedicto XVI, recoge la siguiente expresión del rabino Kock: «Se da idolatría cuando un rostro se dirige reverentemente a un rostro que no es un rostro» (LF 13). O dicho de otra forma: cuando el cielo se vacía de Dios, la tierra se llena de ídolos. Entregar el corazón plenamente a las creaturas en vez de al Creador, conlleva inevitablemente la decepción y el sufrimiento. Así lo expresa la misma encíclica: «El hombre se disgrega en la multiplicidad de sus deseos... Por eso, la idolatría es siempre politeísta, ir sin meta alguna de un señor a otro» (LF 13).

Como bien afirmó Benedicto XVI: «El cielo pertenece a la geografía del corazón». Por ello, el infierno consiste, fundamentalmente, en la ausencia de Dios, en la inmensa frustración por renunciar a colmar el deseo de plenitud que

anida en el corazón humano. Alguien dijo que el cielo no es otra cosa que el mismo Dios ‘por dentro’. Es decir, el cielo no es un lugar en el que está Dios, sino que es en Dios donde se encuentra el cielo. Insisto una vez más: el cielo es participar de la intimidad de Dios, y el infierno radica en el rechazo dramático del don de su amistad.

Dicho lo anterior, pienso que la expresión de Simone Weil —«El infierno es creerse en el paraíso por error»— requiere también de una reflexión complementaria: La antesala de ese infierno consiste en estar rodeados de los dones de Dios —que son las arras del cielo—, sin llegar a reconocerlos ni a disfrutarlos. En efecto, si es idolatría hacer de las creaturas el paraíso, no es menor drama el sentirse desgraciado cuando tenemos motivos sobrados para rebotar de agradecimiento.

En la medida en que nos adentramos en la conocida parábola del Hijo Pródigo, caemos en la cuenta de que el drama de los dos hermanos es el mismo. El problema fundamental, tanto del hermano menor como del hermano mayor, es que no disfrutaban viviendo en la casa paterna. Estaban rodeados de todo lo que necesitaban para ser felices, y, paradójicamente, no lo gozaban. Miraban por la ventana con nostalgia, cuando resulta que todo lo que precisaban para ser felices lo tenían en casa.

En esta misma situación podemos encontrarnos muchos de nosotros: tenemos multitud de motivos para vivir radiantes de alegría, y sin embargo no los disfrutamos. Anhelamos otras migajas, mientras despreciamos el pan que tenemos en nuestra mesa. Por ello, me atrevo a añadir a la expresión de Simone Weil esta otra: A la antesala del infierno se entra cuando se vive amargado por no reconocer las arras del cielo de las que estamos rodeados.

El tiempo de Cuaresma es una buena oportunidad para examinar dónde está colocado el centro de gravedad de nuestro corazón, corrigiendo dos riesgos de signo contrario: apegarnos a los bienes de este mundo, hasta el punto de confundirlos con Dios; y despreciar los dones de Dios, viviendo sumidos en la amargura. La vocación del hombre es la de amar sin idolatrar; disfrutar de los dones de Dios en esta vida, pero sabiendo que solo Dios puede colmar nuestra vocación al amor.

Os propongo que a lo largo de esta Cuaresma meditemos sobre las tres citas bíblicas con las que Jesucristo rechazó las tentaciones en el desierto: «No solo de pan vive el hombre, sino de toda palabra que sale de la boca de Dios», «No tentarás al Señor tu Dios» y «Al Señor, tu Dios, adorarás y a Él solo darás culto». A buen seguro, serán de gran ayuda para discernir entre el falso y el verdadero paraíso. ¡Jesús ha venido para que tengamos vida, y vida abundante! (cfr. Jn 10, 10).

**Sasiparadisua**

Simone Weil, emakume filosofo frantsesa, 34 urte besterik ez zuela 1943an hil zena, pentsamendu misteriotsu baten autorea da, eta merezi du berari buruz gogoeta egitea: «Infernua, paradisia dela oker uste izatea da».

Lehenengo hurbilketa-puntua San Agustinen idazki batean aurkitzen dugu; gizakiaren zoriontasunari buruz ari dela, hipotesi hau proposatzen du: Jainkoak, mundu honetara etorri eta bere ahotsez hitz egingo baligu, eta mundu honetako gauza guztien ugaritasunez neurrigabe gozatzeko gonbita egingo baligu, ez, ordea, bizitzaldi honetan bakarrik, baita betiraunde guztian ere; hori, bai, beraren aurpegia ez dugula inoiz ikusiko esanez... Albiste hori mundura iristean, jarraitzen du San Agustinek, lurbira osoko gizataldearen kexua entzungo litzateke; zapuztua geldituko bailitzateke gizakiak berezkoa duen Jainkoa ikusteko gogo.

Duela gutxi, Gustave Thibon idazlearen liburua itzuli dute gaztelaniara; **Seréis como dioses** jarri diote izenburua; idazleak oso antzekoa den hipotesia proposatzen du, nahiz eta gizadiaren lorpen gisa aurkezten duen: Demagun, zientzi aurrerapenei esker, etorkizuneko munduan gizakiak erabat hilezkorrak direla. Demagun, jakintzak lortu duela gizakiaren berehalako amets guztiak asetzeari, baina betierekotasuna alde batera utzi eta Jainkoaren bizian parte izateari uko egitekotan. Hipotesi honen ondorioa ere, berdin-berdin, gizakiaren frustrazio sakona izango litzateke. Ez baitago zoriontasun osorik Jainkoa gabe. San Agustinek berak oso ezaguna den bere esaldi batean laburbiltzen du hori, esanez: «Zeuretzat egin gaituzu, Jauna, eta gure bihotzak ez du onik, Zugan atsedean hartzen ez duen arte». Gizakiak, kreazioko gainerako izakiek ez bezala, Jainkoarekin barne-elkartasunean bizitzea du helburu, beraren antz-irudira sortua izan delako.

Hain zuzen, «paradisuan» garela uste dugunean egiaz han egon gabe, idolatrian jausten gara halabeharrez; eta idolatria honek itsu eta entzungor uzten gaitu... Frantziskok eta Benedikto XVI.ak lau eskuz idatzia dela esan ohi den **Lumen fidei** entziklikak, Kock errabinoaren esaldi hau jasotzen du: «Aurpegi batek aurpegi ez den zerbaiti begirunez aurpegia bailitzan begiratzea, hori da idolatria» (LF 13). Edota beste era batera esanda: zerua Jainkoa gabe uzten dugunean, sasi-jainkoz betetzen da lurra. Gure bihotza Kreatzaileari ez, baizik eta sorkariei erabat eskaintzeak, desengainua eta sufrimena sortzen digu halabeharrez. Hala dio aipatu entziklikak: «Gizakia sakabanatu egiten da bere irrika ugarien artean... Horregatik, idolatria politeista da beti, jaun batetik bestera joaten baita helmugarik izan gabe» (LF 13).

Benedikto XVI.ak ongi adierazi zuenez: «Zerua bihotzaren geografiari dagokio». Horregatik, infernua, funtsean, Jainkoa gabe gelditzea da, giza bihotzak berezkoa duen osotasun-gogoia asetzeari uko egitea, horrek dakarren izugarritzko

frustrazioarekin. Norbaitek esana da, Jainkoa bera «barrutik», hori dela zerua. Hau da, zerua ez da Jainkoa dagoen lekua; alderantziz, baizik, Jainkoa baitan aurkitzen da zerua. Berriro errepikatuko dut: Jainkoarekin barne-elkartasunean bizitzea da zerua; infernua, berriz, Jainkoarekiko adiskidetasun-dohainari era zentzugabean uko egitea.

Aurreko hori esanik, Simone Weilen—«Infernua, paradisua dela oker uste izatea da»— esaldiak ere merezi du gogoeta osagarri bat egitea: Infernu horren ate-aurrea Jainkoaren dohainez inguratua egotea da, zeruaren berme diren dohainez inguratua egotea, benetako dohainak direla jakin gabe eta horiez gozatu gabe. Hain zuzen, sorkariak paradisutzat hartzea idolatria bada, ez da oker txikiagoa nork bere burua zoritxarreko jotzea, bete-betean esker oneko izateko motiborik asko daukagularik.

Ezaguna zaigun Seme Hondatzailearen parabolan barneratzen garenean, konturatzen gara zorigaitz bat bera dela bi senideek nabari dutena. Bai senide gaztearen bai zaharrenaren oinarrizko arazoa, gurasoen etxean bizitzeaz ez gozatzea da. Zoriontsu izateko behar zituzten gauza guztiez inguraturik egon arren, ez zuten gozamenik. Leihotik kanpora begira bizi ziren, zerbait hobearen minez, nahiz eta zoriontsu izateko behar zuten guztia etxean eduki.

Horrelako egoeran aurki gaitezke gure arteko asko: hainbat eta hainbat arrazoi dugu pozarren bizitzeko, eta, hala ere, ez dugu gozotasunik. Etxeko mahaian dugun ogia arbuiatuz, beste ogi-apur batzuk irrikatzen ditugu. Horregatik, Simone Weilen esaldiari beste hau erantsiko nioke: Infernuko ate-aurrera sartzen gara, inguruan ditugun eta zeruko bermea diren benetako dohainak ez ezagutzeagatik mingostuta bizi garenean.

Egokiera ona da Garizumaldia gure bihotzaren grabitate-zentroa non daukagun jarria aztertzeko; elkarren kontrakoak diren bi arrisku gainditu behar ditugu: mundu honetako ondasunei loturik egotea, beroriek Jainko bihurtzeraino; eta Jainkoaren benetako dohainak arbuiatzea, erabat mingosturik bizitzeraino. Idolatrian erori gabe maitatzea da gizakiaren bokazioa; bizitzaldi honetan Jainkoaren dohainez gozatzea, baina jakinik Jainkoak bakarrik bete dezakeela erabat maitasunerako gure bokazioa.

Proposamen bat egin nahi dizuet Garizuma honetarako; Jesu Kristok basamortuan izandako tentaldiak gainditu zitueneko Bibliako hiru esaldi proposatzen dizkizuet gogoetarako: «gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz guztitik baizik»; «Ez tentatu Jauna zeure Jainkoa» eta «Jauna zeure Jainkoa gurtuko duzu eta hura bakarrik zerbitzatuko». Dударik gabe, laguntza handia izango da egiazko paradisua eta sasiparadisua bereizten jakiteko. «Ni, bizia izan dezaten etorri naiz, bizia ugari izan dezaten!» (Jn 10, 10).